



PRENTSA OHARRA: 2022.11.17

Euskal literaturari leihoa eskainiko dio Festival Eñe jaialdiak

- Euskarak lehen aldiz izango du tokia jaialdian Bernardo Atxagak diseinatutako programa batekin
- Uxue Apaolaza, Fermin Etxegoien, Leire Bilbao, Juanra Madariaga, Jabier Muguruza eta Bernardo Atxaga bera izango ditu protagonista
- Euskal literaturaren leihoa azaroaren 19an egingo da Madrilgo Círculo de Bellas Artes kulturgunean

2009. urtetik Madrilen egiten den Festival Eñe literatura jaialdia idazle, liburu eta irakurleen topagune bilakatzen da udazkenero. Aurtengo edizioa azaroaren 11n hasi zen eta hilaren 27ra bitarte luzatuko da. 80tik gora jarduera egingo dira eta 150tik gora egilek hartuko dute parte. Eta, lehen aldiz, euskarazko letrek lekua izango dute bertan, Etxepare Euskal Institutuaren lankidetzari esker, katalanekin batera.

Bernardo Atxagak izan du euskal literaturari eskainitako leihoaren komisario-lanak egiteko ardura. Hiru ekitaldik osatzen dute proposamena, eta hiruak **azaroaren 19an izango dira Madrilgo Círculo de Bellas Artes kulturgunean.**

Uxue Apaolaza eta **Fermin Etxegoienek** emango diote hasiera, Nacho Fernández Rocafort poeta eta saiakera-idazleak gidatuko duen elkarrizketarekin. Leiho guztietatik ikus daiteke bizitza, baina Uxue Apaolaza edo Fermin Etxegoienen leihoez ari garenean, ikuspegia bereziki zabala da mundu immaterialak baitan hartzen dituelako, norberaren barrenekoak. Bien liburuak euskaraz eta gaztelaniaz irakur daitezke. Ekitaldia Círculo de Bellas Artes eraikinean kokatuta dagoen Fernando Rojas antzokian izango da, 17:30ean.



Bernardo Atxaga, Leire Bilbao eta Juanra Madariagak hartuko dute lekukoa, 19:00etan, Círculo de Bellas Artes-eko dantza aretoan egingo den errezitaldi poetikoan. Poesiaren helburuetako bat topikoen eta lengoia faltsuen kontra borrokatzea baldin bada, hiru autore hauek bikain betetzen dute euren zeregina, drama eta umorearen artean dabilzan erregistroak erabiliz. Euskara dute sormen hizkuntza, baina idatzi dituzten poema asko gaztelaniaz ere eskuragai daude. Leire Bilbaorenak 'Entre escamas' edizio elebidunean; Juanra Madariagarenak 'Física de la mano' liburuan, eta Bernardo Atxagarenak 'Poemas & híbridos' idaztian.

Areto berean, 20:00etan, **Bernardo Atxagaren** ahotsak eta **Jabier Muguruzaren** akordeoiak "poemarik gabeko poesian" barrena gidatuko dute entzulegoa '**Paradisua eta katuak**' emanaldian. Zuzeneko irakurketaren aldeko apustu sendoa den ikuskizun hau gogoeta-bidai baterako gonbidapena da; mapa eskuan hartu, eta existentzia eta utopiaren meandroetan murgiltzeko gonbidapena. Musikaren eta hitzaren arteko elkarrizketa intimo honetan haurraren ahotsaren lilura eta esperientziaren begietan distira egiten duen umorea entzuten dira.

Info+

Mikel Lasa
Etxepare Euskal Institutua
Tabakalera / Andre Zigarrogileen plaza, 1
Donostia / San Sebastián
T: 943 023 400 / M: 688 670 217
komunikazioa@etxepare.eus

www.etxepare.eus